

FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira behar ditugun gauzarik (jarduera) garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

Gure enpresaren funtsezko jarduerak arroparen diseinu pertsonalizatua eta neurria egindako fabrikazioa dira. Diseinua funtsezkoa da, bezero bakoitzaren beharretara eta lehentasunetara egokitutako produktu bakarra eskaintzeko lehen urratsa baita. Diseinatzaile-taldeak diseinu estandarrak egin ondoren, diseinu pertsonalizatuak bezero bakoitzaren beharrak asetzen dituela ziurtatzen du. Fabrikazioak ere garrantzia du, izan ere, arroparen fabrikazioa da salmenta ahalbidetuko duena, hasierako diseinua kalitate oneko oihalekin eratuz. Teknologia aurreratua eta zehaztasun handiko produkzio-teknikak erabiltzen ditugu, jantzi bakoitza material onekin egiten dela bermatzeko. Beraz, bi arlo horiek funtsezkoak dira bezeroaren gogobetetasunerako eta enpresaren arrakastarako.